



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

VI. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2025eko maiatzaren 28, 29 eta 30a
Bilbo, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 4.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Gabriel Arestiren gogoeta
estetikoak garaiko filosofiarekin
hizketan**

Naiara Gago Povedano

11-18 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.vi.01.01>

ANTOLATZAILEA



BABESLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



LAGUNTZAILEAK



Gabriel Arestiren gogoeta estetikoak garaiko filosofiarekin hizketan

Naiara Gago Povedano
Deustuko Unibertsitatea
naiara.gago@opendeusto.es

Laburpena

Gabriel Arestiren ondare poetikoa ikerketaren interesgune izan da aspalditik. Artikulu honetan, baina, 1959 eta 1975 urteen artean prosaz idatzitako testu-lanketaren bidez, egilearen alderdi filosofikoenari emango diogu arreta. Herriaren bozgorailu den poetari buruzko autorearen artikuluek zein hitzaldiek estetikaren esparruan murgiltzen gaituzte. Halaber, garaiko eragin filosofikoak identifikatzeko aukera ematen diguten baliabideak dira, poesiaren eta filosofiaren arteko elkarriketa berpizteko eta Arestiren ekarpen intelektuala aberasteko ere balio dutenak.

Hitz gakoak: Gabriel Aresti, estetika, poesia, euskal literatura, filosofia

Abstract

Gabriel Aresti's poetic legacy has long been of interest to research. In this article, however, by examining his texts in prose written between 1959 and 1975, we will pay attention to the most philosophical aspect of the author. Both the articles and the author's speeches about the poet, speaker of his people, immerse us in the field of aesthetics. They are also resources that allow us to identify the philosophical influences of the time, to revive the dialogue between poetry and philosophy, and to enrich Aresti's intellectual contribution.

Keywords: Gabriel Aresti, aesthetics, poetry, Basque literature, philosophy

1. Sarrera eta motibazioa

Artikulu honen helburua Gabriel Arestiren prosazko testuetan identifikatzen diren ideia estetikoak bildu eta egituratzea da, poesiari buruz duen pentsamenduaren ikuspegi koherentea emateko. Arestiren poetika — edo, berak dioenez, *poematika* (Aresti, 1960, 15) — dugu hizpide: poesiari tresna politiko gisa egozten dion papera (Calleja, 2025, 27) filosofikoki berrikusiko da. Egileak arte-sorkuntza erantzukizunarekin lotzen du: “Nire lekua dago herriaren aldean” (Aresti, 2010, 105), eta baita poeta bidegabekeria salatzeke eta gizartea eraldatzeko agindu etikoarekin ere. Hortaz, herriaren emantzipazioarekin konprometitutako estetika marxistarekin, eta geroago existentzialismoak berpiztuko duen *engagement*-arekin (Sartre, 2004, 57) lerrotzen da, nolabait. “Mundu honetan eznuke/ bizi nahi” diosku (Aresti, 2010, 103). Hala, izaera idealistako metafisika guztietatik aldenduta (Izagirre, 2000, 15), Euskal Herriaren errealitate ukigarria, “begien bistarekin ikus litekeena” (Aresti, 1960, 19), ikuspegi kritiko batetik islatu nahi du.

Arestiren estetikari miatu daitezkeen kontzeptu etiko-politikoek lotura estua dute 1964ko *Harri eta Herri* lanetik aurrera garatutako poesia sozialarekin: justizia, berdintasuna, askatasuna edota elkartasuna, besteak beste. Literaturaren bidez, balio horiek hausnarketarako bide bihurtu daitezke. Izan ere, Arestik poesia garaiko jendartearen kezak adierazteko tresna gisa ulertzen du, “kontzientzien iratzargailu” modura (Kortazar, 2003, 98). Laburbilduz, Arestiren poesia soziala bateraezina da artearen neutraltasunaren aldeko ikuspegiarekin eta une historikoak eskatzen duen kontzientzia arduratsuen ariketa bihurtzen da (García, 2012, 25).

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburua

Luze aztertu da Gabriel Arestiren poesiagintzaren eraldaketa (Aldekoa, 2008, 238-250), baina ez horrenbeste garatu zuen pentsamendu poetikoa (Sarasola, 2014, 81). Hala izanik, literatur kritika Arestiren poesiaren analisi material eta formalean zentratu da, bereziki 1964tik aurrera *Harriaren Ziklo*arekin inauguratu zuen Aro sozialari dagokionez, ukaezina den lanaren garrantzi linguistiko,

literario eta sozialagatik. Interes hau ulergarria da, erabat, Arestiren lanak euskal literaturatik modernitaterako urratsa sendotu baitzuen (Peillen, 2011, 227).

Egilearen ondarearen inguruko argitalpenek eta azterlanek hainbat alderdi jorratu dute orain arte. Hasteko, *Aresti-pertsonari* buruzko ikerketa biografikoak ditugu (Zelaieta, 2000; Kortazar, 2003) eta baita ikus-entzunezko baliabideak ere: *Diot* dokumentalak (2005) eta Adur Larreak sortutako *Gabriel Aresti BioGrafikoa* (2015) komikiak egilearen bizitza ezagutarazten dute. *Aresti-hiritarra* ere aztertu da. Bilbo hiriarekiko duen atxikimendua maiz azaleratzen da, Arestik bere jaioterria *topos* nagusia baitu, ez bakarrik ulertuta espazio geografiko gisa, baizik eta errealitate politiko-sozial baten paisaia historiko zein sinboliko gisa ere (Calleja, 2015; Kortazar, 2000; Landa, 2021). Logikoaenez, *Aresti-literaturgilea* sakonki ikertu da. Gaur egun, inork ez du dagoeneko zalantzan jartzen utzitako aztarna Bernardo Atxagaren, Arantza Urretabizkaiaren, Ramon Saizarbitoriaren edo Joseba Sarrionandiaren lanetan, besteak beste (Amezaga, 2018, 13). Arlo horretan azpimarratzekoak dira Jon Kortazarrek Arestiren lanari buruzko argitarutako idazki ugariak (2000, 2003, 2020, 2021) eta baita autorearen poema argitaratugabeen analisiak ere (2017, 2022). Aipatzekoak ere badira Karlos del Olmok Arestiren antzerkigintzari buruzko saiakera (2016) eta, ikuspegi soziologikoago batetik, poetaren lanak euskal kulturaren garapenean izandako eraginari buruzko Asier Amezagaren doktorego-tesia (2016).

Nor ote da, baina, *Aresti-pentsalaria edo filosofoa*? Idazlearen obra poetikoa, batez ere, agertu da Friedrich Nietzscheri lotuta (Aldekoa, 1996; Arkotxa, 1993; Azurmendi, 1985, 1991; Gartzia Trujillo, 2011). Ikerlan honek, hain zuzen ere, Arestiren lan estrapoetikoetan arreta jarri nahi du, egilearen gogoeta filosofikoetan sakontzeko.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Arestik poetikaz prosan egindako hausnarketa estetikoek ekingo diegu. Lehenik, poesia eta filosofiaren arteko harreman historikoa laburki azalduko da. Ondoren, Arestiren 1959tik 1975era bitarteko artikulua eta hitzaldietan sakabanatuta dauden poesigintzari buruzko ekarpenak bildu eta modu koherentean antolatuko dira. Ideia horiek egituratzean, garaiko testuinguru filosofikoarekin erlazionatuko ditugu ikuspegi hermeneutiko batetik.

Artikulu hau doktorego-tesi zabalago baten parte da. Beraz, baliatutako posizionamendu epistemologikoa kontzienteki egina da, hemen planteatutako ideiak geroko kapitulu zabalago baten oinarria baitira. Bertan, sakonago aztertuko da kontzeptu filosofikoek nola hartzen duten lekua egilearen Aro sozialaren lan poetikoan. Ondorioz, Arestiren teoriaren eta praktika poetikoaren arteko lotura sakonki aztertu ez arren, ondorengo ikerketa egiteko beharrezkoa den kontzeptu-esparru orokorra deskribatzea dugu helburu.

3.2. Poesia eta filosofiaren arteko ahaidetasuna

Tradizionalki aurka agertu direnez, poesia eta filosofiaren arteko loturaren auzia historikoki alde batera utzi da (Garrido, 2009, 9). Alabaina, filosofia eta poesia ez dira antitetikoak, elkarren osagarri eta konbergenteak baizik (Basave, 2002, 325). Gatazkan baino gehiago, orduan, beharrezko komunikazioan egon beharko lukete (Vattimo, 2013, 13). Izan ere, bi adierazpide hauek uste izan den baino hurbilago daudelako seinale ugari daude.

Filosofiaren esparruan, zenbait pentsalarik ingurune poetikoa aukeratu dute ideiak transmititzeko. Eleako Parmenides filosofo presokratikoak, kasu, izatea eta egia aztertzen ditu bidaia alegoriko baten bidez *Naturari buruz* poeman (Reale eta Antiseri 1988, 55). Hastapenetatik, filosofiak poesiarekiko interes teorikoa ere erakutsi du. Arestik, ikuspegi kritiko batetik, Platonen poesiarekiko jarrera ezkorra gogorarazten digu (Aresti, 1960, 18, 22). Dakigunez, Platonek poetak Errepublikatik erbesteratzen ditu gizarte-ordena arriskuan jar dezaketelako (Platon, 1993, 86) eta, hala, *poesiaren kondenazioa* deritzonari hasiera ematen dio (Zambrano, 1993, 14). Aristotelesek, bere aldetik, modu sistematikoan ekiten dio poetikari eta azpimarratzen du poetaren eginkizuna ez dela “gauzak gertatu ziren bezala adieraztea, baizik eta gertatu behar zuten edo gerta zitezkeen moduan kontatzea” (Aristoteles, 1984, 45). Denboraren poderioz, *Estetika* garatuko da edertasunean eta artean oinarritutako filosofiaren adar gisa. Garapen horretan, funtsezkoa da XIX. mendean Friedrich Nietzschekin hasitako bidea, XX. mendean Martin Heideggerrek segitzen duena Europako testuinguruan (Martínez Sanz, 2018, 17). Euskal esparruan, Joxe Azurmendi, Arestiren lagunak, filosofiaren eta poesiaren arteko harremana

aztertzeke, Benjamin, Machado eta Valéryren lanetan oinarritzen da. Azurmendiren arabera, filosofiak, objektiboa eta arrazionala, eta poesiak, subjektiboa eta emozionala, elkar aberas dezakete (Azurmendi, 2011, 159).

Aldi berean, poesiaren alorrean *poeta-filosofoa*k daude. Homero eta Hesiodoren lanetan, adibidez, geroko pentsamendu filosofikoaren ernamuina aurkitzen dela uste da (Reale eta Antiseri 1988, 24). Horrez gain, badira gai filosofikoei buruzko prosazko planteamendu pertsonalak eskaintzen dizkiguten poetak. 1936ko *Juan de Mairena* lanean Antonio Machadok filosofiari (Bergson, Kant, Schopenhauer...), politikari, poesiari eta arteari buruzko gogoetak biltzen ditu (Machado, 2023; Gibson, 2016, 292).

Aresti sortutako lanaren punturen batean gogoeta filosofikoak garatzen dituen poeta-talde horretakoa delakoan gaude. Modu sistematikoan ez bada ere, filosofiara hurbiltzen da estetikari buruzko ideiekin, baita poesigintza eraldaketa kultural eta sozialaren zerbitzura jartzen duenean ere. Aldi berean, mendebaldeko poetikaren auzi orokorretako batzuk aipatzen ditu — hala nola definizioa, tipologia eta edukiaren eta formaren arteko erlazioa —. Finean, estetika edertasunari eta gustuari buruzko gogoeta ez ezik, artearen izaera bere forma guztietan aztertzea ere badela onartzen bada, hausnarketa hauek filosofiaren esparruan kokatzen dira.

3.3. Poeten ardura den poetika

Arestiren biografoaren arabera, “esana da poetarik gehienek euren poetika burutzen dutela. Hor, kasurako, Horaziorena, Santillanako Markesarena, Boileauarena, eta abar. Badu Gabriel Arestik ere propioa” (Zelaieta, 2000, 256). Zehazki, *poematika* bat garatzeko asmoa du *Poesia eta Euskal Poesia* hitzaldian (Donostia, 1960). Bertan, “poesiaren azken funtsean eta fundamentuan dagoena” argitu nahi dio publikoari (Aresti, 1960, 16). Komeniko litzateke, hala ere, poetikaz baino hobeto, *autopoeitika*z hitz egitea (Kortazar, 2020, 8), bere burua “intimitate kolektibo baten profeta edo interprete gisa” aurkezten baitu (Izaguirre, 2000, 7). “Paper honetan dago./ Nago” (Aresti, 2010, 27), ohartarazten digu Arestik eta. Protagoras sofistaren *Homo mensura* printzipioa iradoki nahian balego bezala, gogora ekartzen digu: “Nire buruaz mintzaten naiz, naizelako/ munduaren neurria” (Aresti, 2020, 36-37).

Horrez gain, poetak berak, eta ez beste intelektual motak, auzi estetikoez arduratu behar duela azpimarratzen du: “filologuak, eskola-gizonak, linguistak, hizkuntzaren aztertzaileak, gramatikakoak... hoek, gizon jakintsu guzti hoek, hizkuntza biziaren eta eskritorearen etsaiak dira” (Aresti, 1964b, 189). Ikuspuntu horrek bat egiten du XX. mendeko filosofo batzuekin, bereziki Walter Benjaminekin, narratzailea esperientzien transmisore gisa ulertzen duenarekin (2008, 61), edota lagun duen Jorge Oteizarenarekin, zeinentzat arteak diziplina ezberdinen arteko mugak gainditu behar dituen (1944, 82). T. S. Elioten iritziz, Arestik gaztetatik itzulitako idazlea (1986a, 173), poetak bere obra ebaluatu behar du (1919, 55). Halako ideien eraginez, Arestik bere lan-tresna, literatura, aztertzeari ekiten dio (1966a, 75).

3.4. Egiaren eta onarpenaren artean: poesigintzaren erronka

“Zer da poeta, bada?” (Aresti, 1960, 17) galderari erantzuteko, poeten hitzak sortzen duen ohiko erreakzioa ulertu nahi du. Mezu poetikoa sarritan probokatzaileria da, eta publikoak deserosotasunez jasotzen du (Aresti, 1960, 18). Hein batean, Nietzscheren Zaratuaren hitzak ere mespretxatuak izan ziren: “jendeak barre egin zizun: eta, zinez, bufoi batek bezala hitz egiten zenuen” (Nietzsche, 1992, 20). Filosofoaren antzera, Arestik erdeinu sozial hori salatzen du: “(poeta) izanen da gorrotatua, arbuiatua” (1960, 19) eta, aldi berean, Bilbori enpresa-gizona saritzea baina artista eta idazleei tratu txarrak ematea leporatzen dio (Aresti, 1968, 97). Areago, Arestik berak deitoratzen du euskal kulturak berari askotan egotzitako “zaplaztekoen pailazoaren rola” (1975, 44).

Jendartearen erantzuna, gehienetan, poeta isilaraztea izaten da. Errepresio hori gauzatzeko, poesia ulertzen ez duen publiko *anapoeta*¹ “poeta erosi nahi du, diruz ezpada, orduan palaguz, lausenguz” (Aresti, 1960, 19). Jokabide honek poeta motak bereizteko aukera eskaintzen dio Arestiri. Alde batetik, *poeta-laureatusak* egia ukatzen du eta “mintzaten da jentearen gustuan” (Aresti, 1960, 19). Publikoarentzako bufoi izateari uzten dio horrela, baina poesiaren errespetua galdu egiten du (1960,

¹ Arestik zentzu gutxiesgarrian erabiltzen duen *anapoeta* terminoa Unamunok 1929ko *Cancionero* 642 delakoan sortutako formazio analogiko jaso da, hizkuntza hegemonikoa, gaztelania, euskara bezalako hizkuntza gutxituen aurretik lehenesten duela aipatzeko: “Recreador de la lengua/ anapoeta será/ quien salvando de mengua/ su caudal conservará” (Unamuno, 2002, 430). Arestik Unamunori Euskal Herriaren aurka egitea leporatzen dio (Aresti, 1968, 98), bereziki, 1901eko abuztuaren 27an *Lore Jokoak* izeneko hitzaldiagatik, non Unamunok euskararen desagerpena iragartzen duen.

19). *Poeta-outsiderak*, aldiz, “garaitun irteten baldin badu” (Aresti, 1960, 18), ez ditu ideiak sakrifikatzen publikoaren aurrean makurtzeko, sustrai kantiarraren autonomia bati heltzen baitio, Arestik bere buruari ezarritako leloari jarraiki: “Nire buruaren jabe bakarra neu naiz” (Aresti, 1966b, 90). Dakigunez, autonomiaren kontzeptua funtsezkoa da Immanuel Kanten etika deontologikoan, eta oihartzun handia du pentsamendu existentzialistan. Gabriel Celayak, poesia sozialaren oinarriei buruz hausnartzean, existentzialismoaren eragina azpimarratzen du, zehazki “Jean-Paul Sartre eta bere konpromisoaren teoria, garai hartan goraldi betean zegoena” (Celaya, 1978, 71). Filosofo hauen arabera, bizitzaren esentzia soilak erabakien ardura dakarren askatasuna da (Sartre, 2016, 201) subjektuen arteko harremanez beteriko mundu batean (Beauvoir, 1956, 84). Testuinguru horretan, literatoak ere egiazkotasunetik jokatu behar du, hau da, *zer* esan eta *nola* egin erabaki behar du, hots, egiaaren aldeko edo kontrako apostua egin.

Idea hauek hauspotua, Arestik bere burua etikoki definitzen du: “printzipioen gainean altzatzen dut nire bizimoldea” (Aresti, 1961, 144). Artistaren *mandatuan* erakusten duen enfasia Arestiren adiskide zen Oteizarengan ere atzeman daiteke: artista soberan dago apaintzera murrizten denean eta akatsa da artea jarduera desinteresatua dela pentsatzea (Oteiza, 2007, 327). Ondorioz, poesigintza ez da zeregin esentzialista edo genealogiko hutsa, baizik eta sorkuntza teleologiko bat. Arestiren arabera, poesiaren funtsa, alegia, “zertako senti eta zertako pentsa” galderan datza (Aresti, 1960, 17).

3.5. Poesiaren autentikotasuna: bertsolaritza

Arestik poesiaren taxonomian sakontzen jarraitzen du. Hasieran, poeta *kulturnista* (kultua) eta poeta *populista* (herrikoia) bereizten ditu, baina geroago *poeta-bertsolaria* eta *poeta-olerkaria* bereiztea lehenesten du (Aresti, 1964a, 45). Euskal Pizkundean ohikoa den *poeta-olerkariak* literatura idealista eta sozialki indiferentea sortzen du, kaleko gizakiaren arazoetatik oso urrun dagoena (Aresti, 1968, 104). Aitzitik, *poeta-bertsolaria* herri-tradizioetik elikatzen da (Aresti, 1964a, 46). Ondorioz, haiek dira benetako poeta sozial bakarrak (Aresti, 1963, 184). Bertsolaritzak bere bilakaera estetikoan duen eraginaren jakitun da, eta hori Norbert Tauerri gutunez adierazten dio: “Badakizu lehen poesiak idazten nituela. Lizardiri eta gaurko beste olerkariari imitatzen nien (...) bertsolariek nola egiten duten, eta nola egin zuten behinolako poetek estudiantzen paratu nintzen. Handik beste era bat atera nintzen” (Aresti, 1959b, 140-141).

Tamalez, *poeta-bertsolaria* hain mespretxatua izan da (Aresti, 1964a, 46) ezen bere historia idatzi gabe baitago (Aresti, 1964c, 193). Horregatik, bertsolaritzaren rola goraipatzen du Arestik, ez bakarrik benetako poesia sortzeagatik, baita euskarari eragiten dion bultzadagatik ere. Bertsolaritzak aurreiritzirik gabeko euskara garatzen du, bizitzako edozein egoeratarako baliagarria, hizkuntza fresko, eder, bero eta adierazkorra (Aresti, 1968, 105). Ekarpen honen ausardia historikoki ulertu behar da. 1960tik aurrera, errepresio frankistaren testuinguruan, euskararen aurkako politika kulturala gogortu egiten da, debekuak, isunak eta liburuen bahiketak ugarituta (Otaegi, 2018, 802). Arestik irudi sinboliko indartsu baten bidez deskribatzen du hizkuntzaren egoera hori: “Euskera harri bat da. Baina euskaldun klase hori itoginaren parekoa da, eta urteen buruan, mendeen eta mendeen buruan, ur tantak harria jaten du” (1966b, 91). Zorionez, bertsolaritza eragin horretatik askatzen da (Aresti, 1975a, 124), eta ez da inoiz erdaldun burgesiaren eraginpean egon; burgesiak, hain zuzen, proletarioaren alienazioa areagotzen baitu (Aldekoa, 1996, 231): “Arrazoi honegatik, Julio Urkixorentzat, Sabino Aranarentzat, Mikel Unamunorentzat (...) bertsolaritza (...), eta orduan hain bizirik bizi zen hizkuntza bizia ere, arbuigarriak, erdeinagarriak eta higuinagarriak ziren” (Zelaieta, 2000, 212).

Gauzak horrela, Arestiren ustez poesigintzak euskararen alde borrokatzen duen herri-kulturaren eragile izan behar du (1975a, 126). Ikuspegi horretatik, garaiko giro intelektualaren hainbat ideia filosofikorekin bat etortzen da. Zehazki, estetika marxistaren barruan, apaindura hutsezko artearen aurrean, klase herrikoien emantzipaziora eta kontzientzia kritiko kolektiboa sortzera zuzendutako artea aldarrikatzen da. Axolagabeenganako gorrotoak eraginda, intelektualei gogorarazten zaie bizitzeak parte hartzea esan nahi duela. Aldiz, axolagabekeria apatia da, parasitismoa, koldarkeria (Gramsci, 2011, 19). Ondorioz, Gramsciren ikuspegiarekin bat etorritik, intelektual organikoak funtsezko rola du kultura-berrikuntzan, bere sustraiak baztertu gabe. Gramsci eta Arestiren ustez, literatura berriaren premisak ezin dio utzi historiko-politiko izateari, sustraiak herri-kulturaren humusean hondoratzeari (Aresti, 1967; Gramsci, 1999, 232). Nolabait, Aresti, Gramscik ematen dion zentzuan, *intelektual organiko* gisa interpreta liteke, euskal hizkuntzarekin eta kulturarekin duen konpromisoagatik.

Ildo beretik, Aresti ere bat dator Sartrek idazleari eskatzen dion askatasunaren konpromisoarekin (“*engagement*”): “Hitz egitea ekitea da”, esango du filosofoak (Sartre, 2004, 61). Literatoak ezin du mundutik ihes egin (2004, 49), ezta kontenplazio estetikora edo neutraltasunaren bilaketara mugatu (2004, 62). Konpromisoak literatura berezi bat sortzen du (“*engagée*”) kontzientzia kolektiboa

artikulatu eta eraldatu dezakeena (Adorno, 2003, 397; Lukács, 1963, 120). Arestik literaturak gizartearen kontzientzia pizteko eta zapalkuntzaren aurka borrokatzeko tresna gisa ere ulertzen du, eta helburu horiek poemetan islatu egiten ditu: "inoiz/ inola/ inun/ eznaiz/ isilduko" (Aresti, 2010, 69).

3.6. Materia eta forma: poesiaren batasuna

Sartrek eleberria lehenesten du poesiaren aurretik, poesiak edukia sakrifikatzeko joera duela uste baitu, hau da, olerkaria konpromiso soziopolitikotik urruntzen dela uste du (Sartre, 2004, 59). Paul Valéryk ere antzeko jarrera du, poetari hitzak eta hizkuntza "ez erabiltzea" leporatzen baitio (Valéry, 1990, 42). Arestiren ustez, ordea, poetak materia eta forma orekatu ditzake eta bertsolarien eredia horren froga da. Izan ere, olerkariak ez du poemaren materia soilik oinarritu behar. Hizkuntza sakrifikatzek poesi "filosofia idor eta aspergarri" bihurtzen du, Otsalarren bertsoekin gertatzen den bezala (Aresti, 1960, 19). Joera honek metafisikara hurbiltzen du poesiaren modu arriskutsuan, errealitate enpirikotik haratago joateko saiakera hutsal bilakatu arte: "*Meta* (hau da harago) joan nahi da (...). Nik uste dut *meta* zorioneko hoiek esistitzen ez tutea" (1960, 19). Metafisikari egindako kritika hau *Susmoaren Maisuetan* ere ohikoa da (Ricoeur, 1990, 32) eta Heidegger bezalako autoreek, ildo kritiko horri jarraiki, gizakiaren (*Dasein*) historikotasuna ez ulertzea leporatzen diote (2018, 32). Sartrek ere zalantzan jartzen du metafisika, gizabanakoa subjektu aske eta berezi gisa ulertzeko erakusten duen ezintasunagatik (2016, 189). Hori dela kausa, diskurtso hutsetan ez erortzeko, Arestik formalki ulergarria den poesiaren proposatzen du, hau da, euskara *klaroaren* alde (1975, 228). Helburua agerikoa da: poesiaren masen hezkuntzarako bitarteko didaktiko bihurtzea (1975, 229).

Bestalde, ez da komeni poemaren materia alde batera uztea, estetika zoragarri baina axolagabe bilakatuko litzatekelako, "une bateko lore" (1960, 19), hain zuzen. Gogoeta estetiko hauen eraginez, Arestik aldaketa tematikoa egiten du, lehen etapako sinbolismotik "sustrai sozialista-komunista, errepublikarra" (Kortazar, 2020, 10) eta antifrankista (Kortazar, 2021) duen Aro sozialera. Bilakaera horretan, Blas de Oteroren eragina agerikoa da. *Koloso* bezala deskribatzen du, Salinas hil zenetik izan den gaztelaniatzko (*anti*)poetarik onena (Aresti, 1959a, 135-136).

Laburbilduz, poeta ororen lana da *zer* (materia) eta *nola* (forma) idatzi harmonizatzea, *hilemorfismo* poetiko baten bila balego, "poesia hori baita, ezkontza hori" (Aresti, 1960, 19). Berak ere "gizonen egiarekin bat datozen edukiak (funtsa) erabili zituen euskara (forma) goldatzeko. (...) Arestik egian bilatu zuen poesiaren funtsa, mandatu" (Amezaga, 2018, 39).

3.7. Poesiaren denborazkotasuna

Giza sorkuntza oro denboraren *moduen* eta *moden* mende dago. Idazle batzuek joera berriak saihesten dituzte eta tradizioari eusten diote; beste batzuek, berriz, nahiago dute mugimendu horien alde egin (Aresti, 1960, 20). Dialektika horretatik abiatuta eta Heidegger filosofoaren nozio batzuekin bat etorriz, Arestik hiru poesiaren mota postulatu ditu. Pentsalari alemaniarrek *Dasein*-a definitzen duen denborazkotasunean murgilduta dagoela adierazten du. Gauza bera gertatzen zaio poesiagintzari, Heideggerren ustez izatearen etxea den hizkuntzaren gailurra (Heidegger, 1999, 137).

Lehenik eta behin, *lehengo poesiak* tradizioari leial zaizkion sortzaileak biltzen ditu eta herentzian jasotako esanahien gordailu gisa jokatzeko du: "Poesia egiten hasi zirenek, modu batzuk finkatu zituzten, ez bakarrikan forman, ezpada funtsean ere" (Aresti, 1960, 20-21). Poesia honek bizitza alienatu eta inautentiko bati dagokion *erorketa* (*Verfallen*) isla dezake (Heidegger, 2018, 195), alde aurretik ezarritako moduetatik sortzen baita eta obra zaharkitu eta aldaketarekiko iragazgaitz bihurtzen baitute (Aresti, 1960, 21).

Egileak tradizioa hautsi eta sormena libre uztekoan, egiteko modu berriak sortzen dira, *gaurko poesiaren* hasiera direlarik (Aresti, 1960, 21). Oteizak ere, iraganeko aztarnen artean eroso den gizarte kontserbadore baten aurrean, artea proposamen plastiko eta zientifiko berrietara moldatzeko beharra ere aldarrikatzen du (2007, 303).

Hirugarrenik, *etorkizuneko poesiaren* dela eta, orainaldiko moduak eta modak guztiz hausten direnean garatzen da: "Moda hauk zoroegiak diradenean, geroko poesiaren deitzen diote" (Aresti, 1960, 21). Originaltasunaren bilaketak menderatua, baina, herriaren benetako arazoetatik deskonektatutako produktu iragankor bihurtu daiteke, poesiaren zentzua benetako adierazpide gisa traizionatu arte (1960, 21).

Egiazko poetak, aldiz, *betiko poesiaren* bilatzen du, sorkuntzak, une historikoarekin konprometitzarekin batera, giza esentziarekin bat egin nahi baitu (Aresti, 1960, 21). Finean, existentziaren filosofien perspektibatik ulertuta, poesiaren denborak zeharkatzen du: orainetik etorkizunerantz proiektatzen da benetakotasunaren bilaketan. "Esanen dute/ hau/ poesiaren/ eztela/ baina

nik/ esanen diet/ poesia/ mailu bat/ dela" poema enblematikoan aurreratzen ditu, hain justu, literatur kanon tradizionalei aurre egiteagatik aurpegiatu diezaiozketen kritikak (Arestik, 2020, 59). Halaber, bere poesia mailu batekin identifikatzen duenean, edertasun estetiko hutsa bilatzen ez duela ohartarazten du, borroka kulturalerako tresna praktikoa bat baizik. Berrero ere, zantzu filosofikoak darizkio sinbologia horri. Nietzschek *mailukada* filosofatzen duela ohartarazten du, mailua bere jarrera kritikoaren sinboloa delarik (Nietzsche, 2015). Halaber, mailua Marxengan inspiratutako sinbologia komunistaren adierazle ere bada. Klaserik gabeko gizarte baten aldeko borroka iraultzailean produkzio-indarra eta rol nagusia adierazten dituen erreminta da mailua.

3.8. Egiarekiko leialtasuna: poesia vs zentsura

Arestik, garaiko inguruabarrez hausnartzean, "Poterea, Poterea eta Poterea" lelopean nagusitzen den klase bakar baten ideologia salatzen du (1960, 22). Agerikoa da kritika hau ikuspegi marxistaren kritikekin lerrotatzen dela. Izan ere, Arestik disimulu barik goraiatzen du Marxen jaiotekua: "Eta zu, Treberis,/ benedikatua izanan zara/ munduko/ hiri guztien/ artean,/ zure sabaletika jaioko/ baitda..." (Aresti, 2020, 100).

Marxismoaren arabera, klase menderatzailearen ideiak garai bakoitzeko ideia nagusi bihurtzen dira (Marx eta Engels, 2004, 204). Hala eta guztiz ere, alienaziozko testuinguruan egiazko poetak loratu daitezke (Aresti, 1960, 22). Zapalkuntza gorabehera, haien *mandatua* burgesiaren bidegabekeriak salatzea da. Beste edozein portaera *procedit a malo* litzateke (Aresti, 1960, 22), Beauvoir eta Sartre existentzialistek gizakiak askatasunari uko egiten dion fenomenoaz azaltzeko sortutako *mauvaise foi* (fede txarra) adierazpenaren antzeko zentzuan. Hain zuzen ere, Arestik filosofo frantsesari *Zuzenbide debekatuan* omenaldia egiten dio. Konkretuki, Sartrek giza askatasunarekin lotzen duen erantzukizunari erreparatzen dio: "Joane Paulo Sartre antiojoduna/ (...) Ardura haundia da ematen diguna" (Aresti, 1986b, 254).

Hortaz, "arbuioa, gorrotoa, pena eta kantsanzioa" sentituagatik (Aresti, 1960, 22), poeta sozialak sozialismoa, antifrankismoa eta euskara batzen dituen egia aldarrikatu behar du (Kortazar, 2020, 23). Gogorarazten digunez, horixe da, hain zuzen, Platonek *Errepublikatik* kanporatzen duen poesia subertsiboa (Aresti, 1960, 18). Filosofo atenastarrak arrazoitik urrundu eta plazera eta mina ekarteagatik erbesteratu nahi ditu poetak (Platon, 1993, 86). *Politeian* bezala, Arestiren egiazko poetak ostrakismoa eta gizarte-arbuioa pairatzen ditu: "pertsegitua izanen da, harmaz ezpada, orduan gezurrez edo bortxaz, edo lausenguz" (Aresti, 1960, 22).

Izan ere, errepresioak markatutako garaian, Aresti bera antzeko jazarpenaren biktima da: "jenteak, zentzu egiazkoaren izenean, Golgota mendi batean josiko du poeta gurutze batera" (1960, 19). Zentsuraren espediente handienetako batzuk Arestiren poesia-lanei buruzkoak dira (Torrealdei, 2019, 11) eta, paradoxikoki, zentsore horiek beraiek argitzen dituzte haren mezuaren oinarri ideologikoak: "Oro har, arbuigarria da bere inplikazio politikoengatik eta ideologia marxistaren ñabardura goresgarriagatik. Gai nagusia protesta da. Zentralismoaren, esku sartze politiko eta idiomatikoaren eta euskaldunen beraren aurkako protesta, batzuetan beren idealak eta aldarrikapenak alde batera uzteagatik" (Torrealdei, 1986, 172-173). Arestik uste du literatura gizartea eraldatzeko gaitasuna duen tresna dela, eta, egia esan, haren lana da ideia aurrerakoiak gizarteari helarazteko eta frankismoaren konbentzio sozial zurrundetatik aske dagoen gizarte baten alde egiteko bidea (Calleja, 2015, 27).

Zentzu horretan, Arestiren obra frankismoak bizitzaren eremu guztietan ezarritako errepresioaren aurkako erresistentziagune gisa ulertu ohi da (Otaegi eta Gurrutxaga, 2023, 13). Iñaki Aldekoaren hitzetan, Arestik nahi duen poesiak *komedia sekular* gisa jokatu behar du: *komedia*, eraldaketa sozialaren bidez mundu hobea lortu nahi duelako, eta, *sekularra*, itxaropen hori ez delako maila ontologiko transzendente batean kokatzen, mundutar eta iraultzaile den batean baizik (Aldekoa, 1997, 197).

Azken batean, soilik giza ekintzak eraiki dezake mundu justuago bat, eta Arestik uste du eraldaketa hori poetikoki egin daitekeela: "arimarekin defendituko dut/ aitaren etxea" (2020, 42). Egiazko poesia ez da zentsuraren edo jazarpenaren aurrean kikiltzen. Alderantziz, "betiko poesia benturosoa, epika edo edonolakoa, egiaren amoriotik sortzen da, amorioan, maitasunean egiten du bere ostaturia, eta kanpora irteten duenean, mailukadak eta segakadak bezala da gizon anapoeten lepoaren gainean, poterea eta dirua eta aberastasuna bilatzen duen gizonaren gainean" (Aresti, 1960, 22). Bidegabekeriaren aurka, "poesia batekin erantzun. Gezurrari egia, eta egia esateko biderik egokiena, poesia da" (1960, 26).

4. Ondorioak

Artikulu honetan, Gabriel Arestiren ideia estetikoak deskribatu eta ordenatu nahi izan ditugu, prosazko testuak oinarri hartuta, eta arteari eta poesiari buruz duen ikuspegi berezia modu koherentean azaldu. Estetika marxistak bezala, Arestik herriaren emantzipazioarekin bat datorren artearen alde egiten du, zentsuraren eta iritzi publikoaren aurrean egia babesteko. Ildo beretik, bertsolariak benetako poeta sozialak dira, ez bakarrik mezua eta poesiaren forma orekatzeko duten trebetasunagatik, baita, herri tradizioan errotutako hizkuntzari esker, herriarekin duten lotura sakonagatik ere. Arestiren estetikan, Euskal Herriaren errealitate ukigarria transmititu eta, aldi berean, salatu nahi du, izaera idealistako metafisika guztietatik aldentzen den askatasunarekiko konpromiso existentzialistarekin bat etorrita. Ondorioz, bertsoak ez ezik, garatzen dituen prosazko gogoeta estetikoak ere bidegabekeriaren aurkako erresistentzia-gune direla erakutsi nahi izan dugu.

5. Etorkizunerako planteatutako norabidea

Aurrekoan adierazi bezala, artikulu honek jarraipen logikoa du osatzen duen doktoretza-tesian. Bertan, autorearen poesian ageri diren ideia filosofikoen arteko loturak sakon aztertzen dira beste atal batean.

Bestalde, Arestiren ondarean zenbait alderdi oraindik esploratzeke daudelakoan gaude. Poesiaz haraindi, ikerketa-bide berrietarako oso interesgarria izan liteke bai idatzitako narrazioak bai itzulpen-lanak aztertzea. Arestiren narrazioei dagokienez, adituek faltan botatzen dute gabezia hori: “Baina zer gertatzen da bere prosarekin, edo, hobeto esanda, bere narratibarekin?” (Juaristi, 1994, 46). Itzulpegintza dela eta, beste askoren artean, Shakespeare, Molière eta Brecht egileen lanak itzuli zituen euskal hizkuntza bateratzeko ahalegin handiko testuinguru batean. Lan horiek eragin kultural eta estilistikoak erakusten dituzten heinean, egilearen literatur ekoizpena aberastu eta bitartekari kultural gisa betetzen duen eginkizunean sakontzeko aukera eman lezakete.

6. Erreferentziak

- Adorno, T. W. (2003): *Notas sobre literatura. Obra completa, II*. Akal.
- Aldekoa, I. (1996): *Iharduna eta zentzua Gabriel Arestiren poesiagintzan*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Aldekoa, I. (2008): *Euskal literaturaren historia*. Erein.
- Amezaga, A. (2016): *Harritik herrira. Gabriel Arestiren paperak euskal kultura eta gizartean*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Amezaga, A. (2018): *Inor ez delako profeta bere mendearen. Gabriel Aresti egunean*. Erein.
- Aresti, G. (1959a): Gabriel Aresti Txomin Peillen-i, 1959ko otsailak 2. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 133-137. Susa.
- Aresti, G. (1959b): Gabriel Aresti Norbert Tauer-ri, 1959ko abenduak 14. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 141-142. Susa.
- Aresti, G. (1960): Poesia eta euskal poesia. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 15-29. Susa.
- Aresti, G. (1961): Gabriel Aresti Joxe Azurmendi-ri, 1961eko otsailak 27. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 143-145. Susa.
- Aresti, G. (1963): Basarri bertsolariari. Zeruko Argia, 1963ko azaroak 17. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 184. Susa.
- Aresti, G. (1964a): Lengo eta oraingo euskal poesia erritarra. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 41-53. Susa.
- Aresti, G. (1964b): Lizardi poeta. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 189-190. Susa.
- Aresti, G. (1964c): Pernando errespetatu behar, Zeruko Argia, 1964ko azaroak 6. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 192-193. Susa.
- Aresti, G. (1965): Gu, mendearen semeok. In *Zeruko Argia*, 1965eko martxoak 14, 3.
- Aresti, G. (1966a): Lengua y Literatura vascas: Breve historia e incierto futuro de su relación. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 70-84. Susa.
- Aresti, G. (1966b): Euskeraren izen poetikoak. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 85-93. Susa.
- Aresti, G. (1967): Bilbaoko erdal herritik. In *Zeruko Argia*, 1967ko apirilak 2.
- Aresti, G. (1968): Mentalidad poética vasca. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 96-106. Susa.
- Aresti, G. (1975): La poesía es un medio de educación de masas. *Triunfo*, 666. zk., 1975-VII. In *Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak*, 228-230. Susa.
- Aresti, G. (1986a): *Itzulpenak (I)*. Susa.
- Aresti, G. (1986b): Zuzenbide debekatua. In *Lehen poesiak*, 239-313. Susa.
- Aresti, G. (2020): *El ciclo de la piedra. Antología*. Visor.
- Aristoteles, (1984): *Poética*. Alianza.
- Arkotxa, A. (1993): *Imaginaire et poésie dans "Maldan behera" de Gabriel Aresti 1933-1975*. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Azurmendi, J. (1985): Gabriel Aresti, sentsibiltate konkretu bat. In *Jakin*, 36, 5-30.

- Azurmendi, J. (1991): Arestiren tintazko bataioaz. In *Jakin*, 62. zk., 132-140.
- Azurmendi, J. (2011): *Filosofía eta poesia*. Jakin.
- Basave, A. (2002). *¿Qué es la poesía? Introducción filosófica a la poética*. Fondo de Cultura Económica.
- Beauvoir, S. (1956): *Por una moral de la ambigüedad*. Schapire.
- Benjamin, W. (2008): *El narrador*. Ediciones Metales Pesados.
- Calleja, S. (2015): *Gabriel Aresti. Una biografía de Bilbao*. Erein.
- Celaya, G. (1978): *Poesía completa*. Laia.
- Eliot, T. S. (1919). Tradition and the individual talent. In *The Egoist* 6, 4, 54-55. The New Freewoman.
- García, M.A. (2012): *La literatura y sus demonios. Leer la poesía social*. Castalia.
- Garrido, M. (2009): El sabor filosófico de la literatura. In *Tres poetas filósofos. Lucrecio, Dante, Goethe*, George Santayana ed., 9-15. Tecnos.
- Gibson, I. (2016): *Ligero de equipaje*. Penguin Random House.
- Gramsci, A. (1999): *Cuadernos desde la cárcel, V*. Ediciones Era.
- Gramsci, A. (2011): *Odio a los indiferentes*. Ariel.
- Heidegger, M. (1999): *Arte y poesía*. Fondo de Cultura Económica.
- Izaguirre, K. (2000): Poeta gizon egin zenekoa. In *Harri eta herri*, Gabriel Aresti, 7-19. Susa.
- Juaristi, F. (1994): La modernidad como búsqueda en la narrativa vasca. In *Eusko ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria*, 39 bol., 1. zk. 41-52.
- Kortazar, J. (2017): Gabriel Arestik "mailu batekin" poema bildumari jarritako hitzaurre apokrifiko bi. In *Egan: literatura aldizkaria*, 1-2, 81-96.
- Kortazar, J. (2000): Lauaxetaren eta Arestiren hiriak. In *Bidebarrieta*, VIII, 379-390.
- Kortazar, J. (2003): *El poeta Gabriel Aresti (1933-1975)*. Bilbao Bizkaia Kutxa
- Kortazar, J. (2020): *El ciclo de la piedra. Antología*, Gabriel Aresti. Visor.
- Kortazar, J. (2022): Gabriel Arestiren Soneto bi / Dos sonetos. 1953. In *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 45, 239-275
- Lukács, G. (1963): *Significación actual del realismo crítico*. Era.
- Machado, A. (2023): *Juan de Mairena*. Alianza.
- Martínez Sanz, H. (2018): *Filosofía y literatura*. CreateSpace Independent Publishing Platform.
- Marx, K. H. eta Engels, F. (2004): *Idazlan hautatuak*. Klasikoak.
- Nietzsche, F. (1992): *Honela mintzatu zen Zaratustra*. Klasikoak.
- Nietzsche, F. (2015): *El ocaso de los ídolos. O cómo se filosofa a martillazos*. Austral.
- Otaegi Imaz, L. (2018): Gabriel Arestiren poesia zentsuraren aurrean. Isiltasun garaietarako kodea. In *Euskera ikerketa aldizkaria: Revista de Investigación de la Real Academia de la Lengua Vasca*, 63. bol, 63 Extra, 2. 789-827.
- Otaegi Imaz, L. eta Gurrutxaga, A. (2023): Aberri minez kantari: Aberriaren errepresentazio sinbolikoak euskal literaturan. In *Revista internacional de estudios vascos*, 13-25.
- Oteiza, J. (1944): Carta a los artistas de América. Sobre el arte nuevo en la postguerra. In *Revista de la Universidad del Cauca*, 5., 75-109.
- Oteiza, J. (2007): *Quousque tandem...! Ensayo de interpretación estética del alma vasca*. Jorge Oteiza Museo Fundazioa.
- Peillen, T. (2011): Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena: Euskaltzaindiaren XVI. In *Biltzarra*, 225-236.
- Platon (1993): *Politeia*. Klasikoak.
- Reale, G. eta Antiseri, D. (1988): *Historia del pensamiento filosófico y científico, bol. I*. Herder.
- Ricoeur, P. (1990): *Freud: una interpretación de la cultura*. Siglo XXI Editores.
- Sarasola, B. (2014): Entre Harri eta Herri y Etiopia: la modernidad en la poesía vasca. In *Revista De Teoría De La Literatura Y Literatura Comparada*, 9, 78-94.
- Sartre, J.P. (2004): *¿Qué es la literatura?* Editorial Losada.
- Sartre, J.P. (2016): *El ser y la nada*. Editorial Losada.
- Torrealdai, J.M. (1986): Harrizko Herri hau eta zentsura. In *Harrizko Herri Hau* ed. Gabriel Aresti, 172-173. Susa.
- Torrealdai, J.M. (2019): *De la hoguera al lápiz rojo. La censura franquista en el País Vasco*. Txertoa.
- Unamuno, M. (2002): *Obras Completas, V*. Biblioteca Castro.
- Valéry, P. (1990). *Teoría poética y estética*. Visor.
- Vattimo, G. (2013). *Filosofía y poesía: dos aproximaciones a la verdad*. Gedisa.
- Zambrano, M. (1993): *Filosofía y poesía*. Fondo de Cultura Económica.
- Zelaieta, A. (2000): *Gabriel Aresti. Biografía*. Susa.

7. Eskerrak

Artikulu honek lotura zuzena du idazten ari naizen doktorego-tesiarekin, Gabriel Arestiren lanaren argitan, poesia eta filosofiaren arteko harremanak berrikustea helburu duena. Mari Eli Ituartek (IRALE) Arestirenganako interesaren hazia landatu zuen nigan eta, ordudunik, Cristina de la Cruzek (Deustuko Unibertsitatea) bere gida eta laguntzarekin ureztatzen du.